



SEGURTASUN SAILA  
Administración y Servicios  
Sailburuordetza  
Araubide Juridikoa, Zerbitzuak eta  
Dirección de Elecciones

SEGURTASUN SAILA  
Administrazio Sailburuordetza  
eta Zerbitzuak  
Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen  
Zuzendaritza  
eta Hauteskunde Prozesuak

## SUTEEN PREBENTZIO ETA ITZALKETAKO ETA SALBAMENDUKO ZERBITZUEN LEGE-AURREPROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA

### HAREN APLIKAZIOAK BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUEI ERAGIN DIEZAIKEEN KOSTUAREN EBALUAZIOA.

A) EUSKADIKO FORU- ETA TOKI-ADMINISTRAZIOENTZAKO KOSTUA,  
PLANTILLAK AURREPROIEKTUAN EZARRITAKO SAILKAPEN-KATEGORIA  
ETA -TALDEETARA EGOKITZEAREN ONDORIOZ.

Aurreproiektuak kategoria batzuk aldatzen ditu Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuetan, honako korrespondentzia honen arabera:

- Egungo kategoriak: A1 ofiziala eta A1 ikuskatzailea: A1 ikuskatzailea.
- Egungo A2 ikuskatzaileordearen kategoria: A2 ofiziala.
- C1 ofizialordearen egungo kategoria: B ofizialordea.
- Egungo C1 sarjentu, C2 kabo eta C2 suhiltzaile kategoriak: dagozkien C1 sarjentu, C1 kabo eta C1 suhiltzaile kategorietan.

Horrek oinarrizko soldata aldatzea ekarriko du ofizialorde, kabo eta suhiltzaile kategorietan. Hona hemen xehetasunak:

	<b>C1 oinarrizko soldata</b>	<b>B oinarrizko soldata</b>	<b>Aldea</b>
<b>Ofizialordea</b>	11.040,40	12.853,40	1.813,00
	<b>C2 oinarrizko soldata</b>	<b>C1 oinarrizko soldata</b>	<b>Aldea</b>
<b>Kaporala</b>	9.358,00	11.040,40	1.682,40
<b>Suhiltzailea</b>	9.358,00	11.040,40	1.682,40

Suhiltzaileen plantillak Gasteizko, Bilboko eta Donostiako udalen eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien artean banatzen dira, horiek baitira organo eskudunak.

Hona hemen kategorien arabeko banaketa:

Kategoria	GFA	Donostia	AFA (*)	Vitoria-Gasteiz	BFA	Bilbo	Guztira
Buru oper/inspez	0	0	1	1	0	0	2
Ikuskatzaileordea	0	2	3	6	10	0	21
Ofiziala	4	1		1	4	4	14



Ofizialordea	3	2	8	6	2	3	24
Koord. Segurtasuna eta osasuna	0	0	1	0	0	0	1
Sarjentua	16	6		0	24	6	52
Kaporala	48	18	36	18	54	37	211
Suhiltzailea	156	75	132	91	312	133	899
Mantentze-lanetako ofizialak	0	0	2	0	0	1	3

Beraz, eragin ekonomiko teorikoa honako hau izango litzateke:

Kategoria	Guztira	Aldea	Aldea, guztira
Ikuskatzailea/Op. burua	2	0	0
Ikuskatzaileordea	21	0	0
Ofiziala	14	0	0
Ofizialordea	24	1.813,00	43.512,00
Koord. Segurtasuna eta osasuna	1	0	0
Sarjentua	52	0	0
Kaporala	211	1.682,40	354.986,40
Suhiltzailea	899	1.682,40	1.512.477,60
Mantentze-lanetako ofizialak	3	0	0
Guztira	1.227	5.177,80	1.910.976,00

Erakundearen eta kategoriaren arabera, eragin ekonomiko hau izango luke:

Kategoria	GFA	Donostia	AFA (*)	Vitoria-Gasteiz	BFA	Bilbo	Guztira
Ikuskatzailea	0	0	0	0	0	0	0
Ikuskatzaileordea	0	0	0	0	0	0	0
Ofiziala	0	0	0	0	0	0	0
Ofizialordea	5.439	3.626	14.504	10.878	3.626	5.439	43.512
Sarjentua	0	0	0	0	0	0	0
Kaporala	80.755	30.283	60.566	30.283	90.850	62.249	354.986,40
Suhiltzailea	262.454	126.180	222.077	153.098	524.909	223.759	1.512.478
Guztira	348.648,60	160.089,20	297.147,20	194.259,60	619.384,40	291.447	1.910.976

Datu horiek behar bezala kokatu behar dira testuinguruan.

Lehenik eta behin, suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen titular diren administrazioek gehienez ere lau urteko epea izango dute, lege berria indarrean sartzen denetik, beren lanpostuak lehen aipatutako sailkapen-taldeetara egokitzeko. Egokitzapen horrekin, langileak kategoria berrietan integratuko dira.

Hala ere, egokitzapen horrek berekin badakar lanbide-sailkapeneko taldea edo azpitaldea aldatzea, funtzionarioak iraungitzeko egoeran jarraituko du lanpostuan, eta bere talde edo azpitaldeari dagozkion oinarrizko ordainsariak eta benetan betetzen duen lanpostuari esleitutako ordainsari osagarriak jasoko ditu. Birsailkatutako lanpostuari dagozkion titulazioa egiaztatzen denean sartuko da dagozkion kategorian, ondorio guztietarako; halaber, dagozkion kategorian hamar urteko esperientzia egiaztatzen denean eta ezartzen den prestakuntza-ikastaroa gainditzen denean.

Integrazio horrek ez du gastu publikoa handituko, ez eta urteko guztizko ordainsariak aldatuko ere; beraz, horrek dakarren oinarrizko ordainsarien gehikuntza beste ordainsari osagarri batzuetan xurgatuko da.

Kategoria eta sailkapen-talde edo -azpitalde berrian integraziotik aurrera perfektionatzen diren hirurtekoak, ordainsari-ondorioetarako, sailkatuta geratu diren sailkapen-taldearen arabera baloratuko dira. Integrazioaren aurretik osatutako hirurtekoak ordainketa-ondorioetarako baloratzen jarraituko da, osatu ziren unean aipatutako eskalari zegokion sailkapen-taldearen arabera.

## B) POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIARENTZAKO KOSTUA

Aurreproiektuak 8. artikuluan ezartzen du Euskadiko erakunde komunei dagokiela, Polizia eta Larraldietako Euskal Akademiaren bidez, suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuetako kategorietan sartzeko oinarrizko prestakuntza ematea, bai eta gainerako prestakuntza-jardueretan laguntzea ere.

Hala ere, adierazi behar da jarduera horiek Akademiak egiten dituela dagoeneko, erakunde autonomo horrek eta udalek eta foru-aldundiek suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuetako langileen prestakuntzaren arloan sinatutako lankidetzak hitzarmenen esparruan.

Hala, 2014az geroztik, Polizia eta Larraldietako Euskal Akademiak bere gain hartzen ditu suhiltzaileak sartzeko ikastaroak, eta prestakuntza ematen die bitartekoen lanpostuetako kideei. 2022an, Akademia suhiltzaileen lehenengo oposizio bateratua egiten ari da Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoetako zerbitzuetarako.

Horien garapenean, kategorietan sartzeko ikastaroei dagokienez, prestakuntza-planetan suhiltzaile gidari, kabu eta inspektoreorde izateko ikastaroak jasotzen dira, baita bitarteko suhiltzaile-gidarietarako poltsan sartzeko ikastaroa ere.

Bestalde, prestakuntzaren eremuan, eguneratze- eta hobekuntza-ikastaroak sartzen dira gai hauetan: flashover, barruko suteak, baso-suteak, ibilgailuetan harrapatutako pertsonen erreskatea, ibilgailu astunen istripuetako erreskatea, trenbide-istripuetako erreskatea, gune konfinatuetako erreskatea, NRBQ arriskua eta presio positibo bidezko aireztapen-teknikak.

Hori dela eta, aurreikuspen hori indarrean jartzeak ez du eragin nabarmenik izango Ikastegiaren aurrekontuetan; izan ere, une honetan horri buruz sinatutako hitzarmenetan oinarrituta egiten denari lege-estaldura ematea da kontua.

Hala ere, adierazi behar da 2012ko martxoaren 21eko Aginduaren bidez aldatu egin zela Herrizaingoko sailburuaren 2011ko urriaren 26ko Aginduaren 7. artikulua, Ikastegiak ematen dituen jardueren prezio publikoak finkatzen dituen, prezio publikoen ordainketaren salbuespen berriak sartzeko. Hala, salbuespena sartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko toki- eta foru-administrazioko larrialdi-zerbitzuetako kideak hautatzeko eta prestatzeko prozesuetatik eratorritako jardueri dagokienez, betiere jarduera horiek erakundeen arteko lankidetzak-hitzarmenen esparruan sartzen badira eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Kontseilu Errektoreak onartutako urteko jardueraren parte badira.

#### APLIKAZIOAK PARTIKULARREI ERAGIN DIEZAIKEEN KOSTUAREN EBALUAZIOA.

Bestalde, enpresako suhiltzaileen figura arautzen da. Horretarako, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak prestakuntza egiaztatzea eskatuko du, akademiak berak ezartzen, baliozkotzen edo homologatzen duen prestakuntza gainditu ondoren. Suhiltzaileak dituzten enpresek edo erakundeek, lau urteko epean, behar diren jarduketak egin beharko dituzte langile horiek lege honetan ezarritako betekizun eta baldintzekin hartzeko. Horrek karga ekonomikoa dakar zerbitzu horiek izatera behartuta dauden enpresa horientzat.

Azkenik, adierazi behar da ez dela aurreikusten lege-aurreproiektu honen ondoriozko bestelako kosturik.

**RICARDO ITUARTE AZPIAZU**  
**LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARIA**